

auzo z auzo • auzo z auzo • auzo z auzo

herrera

Jaiei eutsi nahiean

Bidebietako Famili eta Gizarte Heziketarako zentroak antolatu ditu jadaunik bigarren hiruhilabeterako iharduerak eta ikastaroak.

Ikastaroak honako hauek dira: eskulanak, euskara (lehen urratsak), gimnasia, argazkingintza, enkuadernazioa, marrazkia, akuarela, gozogintza, altzariak berritzea, jostungintza, marrazkia-pintura-oleoa, sukaldaritza (hastapenak), puntua, hariz egindako lanak, loragintza, yoga, ezatabaida, geriatría, masaia, bricolajea, kultura aktiboa, musikoterapia, sukaldaritza tradizionala, farfailgintza eta literaturako mintegia.

Izen emateak Serapio Mujika kaleko 10.can egindo dira, hau da, Moneda Baserrian edo bestela 39 54 99 telefonora dei dezakezue.



Donostiako Jai Batzarreko komisioa jaiak KTEren ardurapean geratu zirenean sortu zen, guztiek ordezkari eta solaskide bera izan zezaten.

Donostiako auzoetako Jai Batzarreek bilera egin zuten KTEko bulegoetan, Herrerako jai batzardea ere bertan zela, joan den astean.

Parte hartu zuten guztientzat txosten bat presatatu zuen Herrerako Jai Batzarreak premiazko arazoak aztertuz.

Jai Batzarre guztiek egin zuten bat txostenarekin, arazo eta zailtasun beretsuak baitituzte guz-

tiek.

Talde asko dirua banatzeko

Txostenak dioenez, duela bi urtez geroztik, aurrekontuak ez dira aldatu. Gero eta auzo gehiagok parte hartzen duenez, diru kopuru bera banatu behar dute talde gehiagoren artean prezioak gora doazen bitartean.

Azken urteetan banatu diren 24 milioez gain, Jai

Batzarreek azpiegitura egokiagoak eskatzen dituzte: oholtzak, hesiak, etab. jai antolatuetan behar-beharrezkoak direnak.

Baimenak eta isunak

Oraindik kolokan dagoen gaia dugu hau. Izapidetza ofizialak, baimenak eta isunak behingoz konpontzea eta gai horiei buruz hitzegitea eskatu diote KTEri Donostia osoko Jai Batzarreek.

Donostiako Jai Batzarre hauen komisioa hiru sailetan dago banatuta: ekonomia, azpiegiturak eta kultura.

Zoritxarrez, arlo ekonomikoaz gain, beste bien funtzionamendua ez da behar bezalakoa izan eta hemendik aurrera hobeto antolatzeko bildu dira berriro.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



EROSO, S.L.

INSTALACIONES DE GAS Y CALIFACCION



GASA ETA BEROKUNTZA GAS NATURALA

instalatzen dugu PROPANOA ETA HIRI-GASA

Gas bidezko etxe-tresnak (Bitrozeramika, labeak, lehorgailuak etabar...)

BULEGO NAGUSIA. DONOSTIA. TFNO: 39.11.05

Jose Elosegil Ibilbidea, 105. Donostia.

ORDEZKARITZA. IRUN-HONDARRABIA. TFNO: 62.18.64.

intxaurrondo


«Aitonen etxea» egoitza bila

Jubilatuen lokala txikia geratu da 400 bazkideentzat

Kaldereroak izango ditugu ikusgai gure auzoko kaleetan. Ipar-Haizea eta Intxaurdi auzo elkarteek, otsailaren 4rako prestatu dute festa. Kaldereroak, Hego-Intxaurrondoko Herri Lurra plazatik irtengo dira arratsaldeko 5.30etan. Buztintxulo, Zarategi, Gaztelu eta zenbait zona ondoren, Baso-Txikin amaituko dute.

Santa Ageda bezperan, Zulo-Zahar elkartetik talde bat aterako da kantari. Ordua oraindik zehaztu gabe badago ere, parte hartu nahi duena, elkartetik pasa daiteke.

Zulo-Zahar Hirigintza Batzordeak, Meteorologi Zentruko arduradunari elkarrizketa bat eskatu dio Intxaurrondoko zentru berria eraikiko den inguruko zona berdea gordetzeko eta guztientzat erabilgarri izan dadin proposamena egiteko.



Oraingo behintzat aiton-amonak, beren karta joko eta solasaldiak ohizko lekuan egiten jarraituko dute, beti ere lokal berri bat izango duten itxaropena galdu gabe.

auzoko Jubilatuen lokala txikia geratu da 400 bazkideak biltzeko

Intxaurrondo kalean dugun «Aitonen Etxeak», 1977az geroztik, egunero funtzionatzen du.

Bazkideen esanetan, espazio falta somatzen da, bazkide kopurua handitzen doan heinean.

Honen aurrean, iazko martxoan, Udalarik lokal handiagoa eskatu zitzaion.

Zulo-Zahar Hirigintza Batzordeak ere bat egin zuen eskaera horrekin. Konkretuki, Atzedenetxe etxea eta bere inguruak eskatu ziren horretarako.

Zahar elkarteak abantaila asko ikusten dizkio kokagune honi: autobusaren hurbiltasuna, lorategiak, lur laua... Bestalde, jubilatutako gehienak inguru honetakoak izanik, leku atseginena iruditzen zi-

tzaien beste hainbat ekingintza egiteko ere: 3. adinari buruzko hitzaldiak, telebista eta bideoa, dantzaldiak, ilepaindegia, liburutegia...

Udala, Intxaurrondo guztirako jubilatuen etxe baten proiektua aztertzen ari da, oraindik data zehatzik ez ezagutu arren.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

ARGAZKIA: XIMON

Gure auzoan beharrezkoak

ILEAPAINDEGIA LAGUNAK

Zubiaurre pasealekua, 49 behea
Tfnoa.: 27 69 70

KOSKA ENARA, S.L.


RENAULT AGENTZIA

Zubiaurre pasealekua, 41 Tfnoa.: 28 35 11

ZABALTOKI

- Sagardo txotx
- Bazkari eta afariak

Zubiaurre pasealekua, 50 • Tfnoa.: 27 83 76



Intxaurrondo Linterneria

Intxaurrondo kalea, 50 • Tfnoa.: 272246

ERDIKOA TABERNA

Intxaurrondo, 59
Tfnoa.: 28 62 99

OLABARRIETA

Lurrindegia / Botika

Zubiaurre pasealekua, 63 behea
Tfnoa.: 28 36 17